

Esportazioen prezioak % 0,7 jaitsi dira 2022ko bigarren hiruhilekoan

Inportazioen prezioak % 0,8 igo dira

2022ko bigarren hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 0,7 egin dute behera, 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. Aldiz, alderaketa aurreko urteko hiruhileko berarekin egiten badugu, 2021eko bigarrenarekin alegia, % 11,4ko igoera izan da.

Inportazioen prezioek neurritsu egin dute gora, % 0,8, 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 21,1 egin dute gora 2021eko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Esportazioetan, % 0,3ko aldakuntza positibo txikia izan da produktu energetikoen prezioetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; hala ere, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, hazkundera % 24,4ra iritsi da. Produktu ez-energetikoen portaera apur bat negatiboa da hiruhileko arteko konparazioan (-% 0,3) eta positiboa aurreko urtearen aldean (% 10,7).

Inportazioen kasuan, produktu energetikoen prezioen indizea % 8,8 hazi zen hiruhileko arteko tasan, eta ez-energetikoena, berriz, % 2,7 jaitsi zen. Urte arteko ikuspegitik, produktu energetikoen joera areagotu egin da, tasa % 53,4 baita; produktu ez-energetikoei ere igoera nabarmena izan dute, % 12,8koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2022/II

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-0,7	11,4	0,8	21,1
Energiazko gaiak	0,3	24,4	8,8	53,4
Energiazkoak ez diren gaiak	-0,3	10,7	-2,7	12,8
Kontsumo-ondasunak	0,9	8,4	-2,8	7,8
Kapital-ondasunak	0,5	12,3	4,3	6,1
Bitarteko ondasunak	-1,2	12,3	0,8	23,4

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhileko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hiri beraren aldean

Data 2022ko Irailaren 30a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, igo egin dira Kontsumo-ondasunen esportazioen prezioak (% 0,9) eta Kapital-ondasunen esportazioenak (% 0,5), baina jaitsi egin dira Bitarteko ondasunen esportazioen prezioak (-% 1,2), hori dena 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Azken urteko bilakaerari erreparatuta (2022ko bigarren hiruhilekoa 2021eko bigarren hiruhilekoaren aldean), kategoria guztietan izan dira igoerak: Kontsumo-ondasunen prezioak % 8,4 hazi dira, eta % 12,3 igo dira bai Kapital-ondasunen prezioak, bai Bitarteko ondasunenak.

Inportazioen analisiak erakusten du ezen Bitarteko ondasunen prezioak igo egin direla, hala hiruhileko artean (% 0,8) nola urte artean ere (% 23,4), Kapital-ondasunenak bezala (% 4,3 eta % 6,1, hurrenez hurren). Kontsumo-ondasunen kasuan, prezioek % 2,8 egin dute behera aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina % 7,8 egin dute gora aurreko urtearekin alderatuta.

Esportazioek xede dituzten **eremu geografikoak** kontuan hartuta, prezioek, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, beherakada txikiak izan dituzte eremu guztietan; nabarmenenak Munduko gainerakoan (-% 1,7) eta EB-28an (-% 1,2) izan dira. 2021eko bigarren hiruhilekoarekiko bilakaera kontrakoa da; prezioek gora egin dute eremu guztietan: Munduko gainerakoan % 11,4 igo dira, ELGAN berdin, Eurogunean % 9,6 eta EB-28n % 9,7.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2022/II

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-0,7	11,4	0,8	21,1
Euro eremua	-0,9	9,6	3,0	14,6
EB-28	-1,2	9,7	1,3	12,5
ELGE	-0,4	11,4	-1,1	13,1
Munduko besteak	-1,7	11,4	5,0	41,0

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hila beraren aldean

Data 2022ko Irailaren 30a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioak aztertuta eta 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, prezio-igoerak atzematen dira eremu guztietan, ELGAtik datozenetan izan ezik, zeinetan % 1,1 jaitsi baitira; horrela, prezioak % 5,0 igo dira Munduko gainerakoan, % 3,0 Eurogunean eta % 1,3 EB-28an. 2021eko bigarren hiruhilekoko inportazioen prezioekiko, igoera handiak izan dira eremu geografiko guztietan, eta nabarmentzekoak dira Munduko gainerakoan izanikoa (% 41,0); bestalde, Eurogunean % 14,6 hazi dira, % 13,1 ELGAN eta % 12,5 EB-28an.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62